



DEBAKO UDALA

Debako udal etxebizitza tasatuak arautzen dituen ordenantza orokorra aldatzeko proposamena.

#### ZIOEN AZALPENA

Debako udal etxebizitza tasatuak arautzen dituen ordenantza orokorra Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legea baino lehenagokoa da. Lege horrek errotikako aldaketarik ez badakar ere, babes publikoko etxebizitzak sustatzeko modu berria arautzen du. Lehen, esku-hartzea etxebizitzan bertan, elementu fisikoan, zentratu izan da; lege horretan, ordea, pertsona eta haren ekonomia-egoera jartzen dira erdi-erdian.

Artikulu horiek udal etxebizitza tasatuen onuradunek izan behar dituzten gehieneko eta gutxieneko diru-sarrerak arautzen dituzte: 10. artikulua, erregimen orokorreko etxebizitza tasatuetakoa, eta 13. artikulua, berriz, erregimen berezikoetakoa. Erregulazio hori oso modu hertsian dago jasota, eta Udalak ez du inolako aukerarik etxebizitzak esleitu behar diren uneko egoera aintzat hartzeko.

Horiek horrela, etxebizitzari buruzko legeak babes publikoko etxebizitzak sustatzeko ezartzen duen modu berri horrekin bat etorri egokia da etxebizitza tasatuak arautzen dituen ordenantza orokorraren 10. eta 13. artikulua aldatzea, dagokion udal organoak aukera izan dezan pertsona eta haren ekonomia-egoera kontuan hartzeko udal-araubideko etxebizitza tasatuen sustapen bakoitza onartzeko unean.

Propuesta de modificación de la ordenanza general reguladora de la vivienda tasada municipal del municipio de Deba

La ordenanza general reguladora de la vivienda tasada municipal de Deba es anterior a la Ley 3/2015, de 18 de junio, de Vivienda. Aunque dicha Ley no incorporó cambios radicales, supuso un giro en el modo en que se concibe la acción de fomento de la vivienda de protección pública. Hasta entonces la intervención se centraba en la propia vivienda, en el elemento físico, mientras que en esta ley se pone en el centro a la persona y a su situación económica.

Estos artículos regulan los ingresos máximos y mínimos de las personas beneficiarias de las viviendas tasadas municipales, el artículo 10 para las viviendas tasadas de régimen general, y el artículo 13, por su parte, para las de régimen especial. Esta regulación está recogida de forma muy estricta y el Ayuntamiento no tiene posibilidad alguna para considerar la situación existente en el momento en el que se vayan a adjudicar las viviendas.

Por ello, en concordancia con la nueva forma de promoción de vivienda de protección pública que establece la ley de vivienda, procede modificar los artículos 10 y 13 de la ordenanza general reguladora de las viviendas tasadas para que el órgano municipal correspondiente pueda tener en cuenta la persona y su situación económica en el momento de aprobar cada promoción de viviendas tasadas de régimen municipal.



DEBAKO UDALA

*1. artikulua. Debako udal etxebizitza tasatuak arautzen dituen ordenantza orokorraren 10. artikulua aldatzea.*

Debako udal etxebizitza tasatuak arautzen dituen ordenantza orokorraren 10. artikulua honela geratzen da idatzita:

*10. artikulua. Diru-sarrerak.*

Araubide orokorreko udal etxebizitza tasatuen onuradunen gutxieneko eta gehieneko diru-sarrera haztatuak sustapen bakoitzaren oinarri espezifikoetan edo behin-behineko kalifikazioaren ebazpenean ezarriko dira, babes sozialeko etxebizitzak edo araubide orokorreko babes ofizialeko etxe bizitzak eskuratzeko indarrean dauden diru-sarrerekiko indize baten arabera kalkulatuta.

*2. artikulua. Debako udal etxebizitza tasatuak arautzen dituen ordenantza orokorraren 13. artikulua aldatzea.*

Debako udal etxebizitza tasatuak arautzen dituen ordenantza orokorraren 13. artikulua honela geratzen da idatzita:

*13. artikulua. Diru-sarrerak.*

Araubide bereziko udal etxe bizitza tasatuen onuradunen gutxieneko eta gehieneko diru-sarrera haztatuak sustapen bakoitzaren oinarri espezifikoetan edo behin-behineko kalifikazioaren ebazpenean ezarriko dira, babes sozialeko etxebizitzak edo araubide orokorreko babes ofizialeko etxe bizitzak eskuratzeko indarrean dauden diru-sarrerekiko indize

*Artículo 1. Modificación del artículo 10 de la ordenanza general reguladora de la vivienda tasada municipal del municipio de Deba.*

El artículo 10 de la ordenanza general reguladora de la vivienda tasada municipal del municipio de Deba queda redactado en los siguientes términos:

*Artículo 10. Ingresos.*

Los ingresos mínimos y máximos ponderados de las personas beneficiarias de las viviendas tasadas municipales de régimen general se establecerán en las bases específicas de cada promoción o en la resolución de calificación provisional, calculada en base a un índice sobre los ingresos vigentes para el acceso a las viviendas de protección social o viviendas de protección oficial de régimen general.

*Artículo 2. Modificación del artículo 13 de la ordenanza general reguladora de la vivienda tasada municipal del municipio de Deba.*

El artículo 13 de la ordenanza general reguladora de la vivienda tasada municipal del municipio de Deba queda redactado en los siguientes términos:

*Artículo 13. Ingresos.*

Los ingresos mínimos y máximos ponderados de las personas beneficiarias de las viviendas tasadas municipales de régimen especial se establecerán en las bases específicas de cada promoción o en la resolución de calificación provisional, calculada en base a un índice sobre los ingresos vigentes para el acceso a las



DEBAKO UDALA

baten arabera kalkulatuta.

viviendas de protección social o viviendas de protección oficial de régimen general.